

Maite Alonso, Presidenta
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Ana Marta Iriarte
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Lourdes Villardon
Jone Unzueta
Eva Blanco, Secretaria Técnica

IRIZPENA 21/03

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko martxoaren 4ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **atzerriko hezkuntza-sistema ikasketak irakasten dituzten ikastetxeetan gaztelania eta euskal kultura irakasteko curriculumua eta gutxieneko ordutegia ezartzen dituen agindu-proiektuari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK:

Maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuak, Espainian dauden atzerriko ikastetxeen erregimenari buruzkoak, erregulatu zuen atzerriko herrialdeetako hezkuntza sistemei dagozkien unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza mailak Espainian eskaintzen dituzten ikastetxeen erregimen juridikoa, edozein izanik ere ikastetxe horien titularraren nazionalitatea.

Agindua, 2012ko martxoaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta atzerriko hezkuntza-sistema bateko ikasketak eta Espainiako eta Euskal Herriko hizkuntza eta kulturari buruzko ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakasgaiak indarrean dagoen curriculumaren arabera ezarri zituen.

Curriculum hori aldatu zuen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumua zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Dekretu horren seigarren xedapen gehigarrian ezartzen denez *Hezkuntza-
eskumenak dituen sailak bere eskumenen arabera erabakiko du Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako atzerriko zentroek zer irakatsi behar duten gaztelania eta kulturari eta euskara eta kulturari buruz.*

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek 8 artikulua dauzka, xedapen indargabetzaile bakarra eta 2 azken xedapen.

1. artikulua arauaren xedea eta aplikazio esparrua ezartzen ditu.
2. artikulua ezartzen du ikastetxe horiek Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Lehen Hezkuntzako Gizarte Zientziak eta Bigarren Hezkuntzako Geografia eta Historia irakasgaietako curriculumak egokituko dutela EAEn arlo eta ikasgai horietarako indarrean dauden curriculumetara.
3. artikulua curriculum horien gutxienezko irakaskuntza orduak zehazten ditu.
4. artikulua ikasgai horiek irakatsiko dituzten irakasleen titulazio eskakizunak ezartzen ditu. Baita ere dio gainerako irakasleen erregimen berean parte hartuko dutela ikastetxeko organoetan. Bestalde, ikastetxeek langile horien artetik aukeratuko dute ikasgai horiek koordinatuko dituen zuzendari teknikoa.
5. artikulua ikasgai horien ebaluazio eta kalifikazioari buruzkoa da, zeina ikastetxeko gainerako ikasgaiak aplikatzen zaizkien arauen arabera egingo baita.
6. artikulua ikasketen homologazioari eta baliokidetzari buruzkoa da.
7. artikulua dio zentro horiek Hezkuntza Administrazioaren Ikuskaritzaren menpe daudela.
8. artikulua aukera ematen du Euskara eta Literatura ikasgaitik salbuesteko eskaera egiteko, oinarrizko ikasketetako ikasleentzat ezarritakoaren arabera.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du irakaskuntza horiek arautzen zituen 2012ko martxoaren 12ko Agindua.

Azken xedapenetatik lehenengoak baimena ematen dio Hezkuntza Sailburuordetzari hura interpretatzeko eta garatzeko behar diren jarraibideak emateko, eta Bigarrenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. - BALORAZIOAK

2012ko martxoaren 12ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta atzerriko hezkuntza-sistema bateko ikasketak eta Espainiako eta Euskal Herriko hezkuntza eta kulturari buruzko ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakasgaiak indarrean dagoen curriculumaren arabera ezarri zituen. Dekretu horren sei-

garren xedapen gehigarrian ezartzen denez, Hezkuntza-eskumenak dituen sailak bere eskumenen arabera erabakiko du Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako atzerriko zentroek zer irakatsi behar duten gaztelania eta kulturari eta euskara eta kulturari buruz.

Agindu proiektu honen helburua da Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura. Geografia eta Historia eta Gizarte Zientziak irakaskuntzak arautu eta ezartzea, Oinarrizko Hezkuntzari dagozkion hezkuntza sistemetako ikasketak EAEn eskaintzen dituzten atzerriko ikastetxeentzat. Horretarako agindu proiektuak dio ikastetxeek egokituko dutela indarrean dagoen curriculumak, inolako eskakizunik erantsi gabe, salbu eta ezartzen diren gutxienerako irakaskuntza orduak errespetatzea.

Ordutegiari dagokionez, Oinarrizko Hezkuntza osoan, 1050 orduko gutxienerako ordutegia ezartzen da, bai Gaztelania eta Literaturarako, bai Euskara eta Literaturarako, eta 735 ordukoa Gizarte Zientzien eta Geografia eta Historiako curriculumak emateko

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek ez dio eragozpenik jartzen proposamen horri, uste baitu aldaketa formala dela, eta nahitaezkoa araua indarrean dagoen curriculumera egokitzeko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2021eko martxoaren 4an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA